


 **INDEPENDENTISTAK**



[kartografia ©ign.es]

EUSKAL HERRIKO



ERDIGUNEA



Irañeta

Irteera: Irañetako kanpetatik (460m).
Garaiera: 765m.
Zailtasuna: Erreza.
Igoera: 1:50 Irañetako kanpetatik eta 1:30 Irañetako bordatik
Autoa: Irañetako zelaiaren kanpoko aldean, pista hasi aurretik.
Beriain 19+2 mendi gidatik argitaratutako ibilbidea, 30. orrialdea.

Irañetatik trenbidea eta autobieren goiko partetik pasatu eta bertan seinale batek "Campa de Irañeta" markatzen duen bidea hartuko dugu. Berehala, beste bidegurutzetara joango gara eta Irañetako zelaira iritsiko gara. Han autoa uztea gomendatzen dugu, nahiz eta gorago, basoan, uzten ahal den. Handik pista bat abiatzen da zuzenean baso aldera. Bide horrek 15 minututan basora eramaten gaitu.

15 minutu zelaitik. Basoaren hasieran, eskuinaldean, panel informatibo bat ikusiko dugu, kontuz!!! Panel honetan, ez da ageri hemen azaldutako bidea; lehenbiziko zatia ez behintzat. Ez nahastu. Hemen, bide zuzenena eta politena (gure ustez) azaldu nahi izan dizuegu. Mendi aldera doan pista zabalena hartuko dugu eta 5 minututan Irañetako bordara iritsiko gara. Hau da abiapuntua eta hemen jendearekin geldituko gara: Irañetako bordan, 9:30etan

Hemendik bi bide ateratzen dira, eta guk pista zabaletik segituko dugu, ezkerretatik. Aurrerago beste langa bat pasako dugu eta, hortik gutxira, bideak ezkerretara emanen du bira. Nahiz eta eskuinaldean dagoen pagoan ez joateko markatzen duen, guk pista nagusitik segituko dugu, ezkerretatik. Aldapa bat igo eta bide zabalak eskuin aldera biratuko du. Orduan, bihurtune horretan ezkerretara ateratzen den bide bat hartuko dugu.

35 minutu. Basabideak pagadi zoragarri batean sartuko gaitu. Gorago, beste 10 minutu ingurutan, eskuinetik datorren beste bide handiago batekin bat egiten dugu. Hau Irañetako mendatea da eta hemendik aurrera bidea oso ongi markaturik dago. Hemendik gora segituko dugu, eta basabideak eskuinera egiten duenean, porta langa baten ondoan lhabarretik datorren bidearekin bat egiten dugu.

50 minutu. Goiko lepo eder batera iritsiko gara, gure ezker aldean Idoitxiki mendia dugu (1.255m). Eskuin aldean Beriain mendia aurkitzen da eta aurrez aurre, eskuin aldera pixka bat begiratu Leziza mendia. Lezizaren magalean dugu Euskal Herriko Erdigunea. Atakatik aurrera bidea ez dugu markaturik baina Leziza mendiaren erreferentzia izanez gero erraza izango dugu. Lainoa egiten badu, berriz, aurrera joanez Beriainera igotzen den bidearekin egingo dugu topo eta, behin bidea hartuta eskuinerantz igoko gara Euskal Herriko erdigunea, gure ezker aldean, ikusi arte. Ordu bat eta 45 minutu.

Senosiain

Irteera: Senosiain (540m).
Garaiera: 705m
Zailtasuna: Erreza.
Igoera: 2h15'
Autoa: Herrian.
Beriain 19+2 mendi gidatik argitaratutako ibilbidea, 38. orrialdea.

Senosiainen goiko partean jendearekin geldituko gara, 8:45etan. Senosiaingo goiko aldetik, aska bat dagoen tokitik, pista bat abiatzen da. Hori hartu eta segituan ur-andel edo deposituen ondotik pasako gara. Pista segituta langa bat gurutzatuko dugu aurrerago eta borda zahar batzuen ondotik ere pasako gara gero. Pista pinudi batean bukatu egiten da. Ordu 1 eta 10 minutu.

Ordu 1 eta 10 minutu. Orain pinudiaren ezkerreko aldetik joan beharko dugu. Goian beste langa bat pasatu eta pinudia bukatzen duenean basabide batetik eskuinaldera joko dugu, Ollotik datorren bidearekin bat egiteko. Osozara, ordu 1 eta 25 minutu.

Ordu 1 eta 25 minutu: Hemendik aurrera harri piloak segitu behar ditugu, parean dagoen lepore heldu arte. Goiko aldean gaudenean, ezkerretik datorren pista-bidearekin topo egin behar dugu. Behin bidea hartuta Beriain aldera segitu behar dugu. Ezkerrean dagoen mendiaren altueran gaudenean, hau da, Lezizaren altuerara iristerakoan, mendi honen eta bidearen artean Euskal Herriko erdigunea ikusteko aukera izanen dugu: 2 ordu eta 15 minutu.

Ikusi mendizaleak

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak, mendi tontor gainera igon behar dogu. Ez nekeak, ezta bide txarrak gora, gora Euskal Herria. Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean euskal lurren artean begiak zabaldurik bihotza erreta. Hain ederra, hain polita da ta, gora, gora Euskal Herria. Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.

Unanu

Irteera: Unanu (630m).
Garaiera: 795m.
Zailtasuna: Erreza eta oso bide argia.
Igoera: Unanutik 1h 50' San Donatia eta 2h 30' E.H. Erdigunera
Autoa: Unanu herritaren.
Beriain 19+2 mendi gidatik argitaratutako ibilbidea, 18. orrialdea.

Unenuko herritaren, goiko aldien goraka atiatzen dan pista bateti atiatu ga. Uts (ur) depositua pasatu, eskubitea kurbat eta gero, porta langat pasatuko dou. Pistatik segitua beleixe (berehala) ezkerretara diyuen kurba baten ondorien, ezkerreko partien, xenda bat ikusiko dou, hemendik fanda (joanda) "Iturtxikira" elletuko ga. Hau da abiapuntua, baina jendearekin herrian geldituko gara 8:15etan.

25 minutu. Iturtxikitik berriz pista atako (aterako) ga eta bertan daun kruzian goiko pista joko dou. Metro gutxitan, ezkerreko partien xendat (senda bat) ikusiko dou, hemendi fagadien (pagadian) sartuko ga. 25 minutuen xendan segituta, basotik zelai batia, atako ga eta segiden, itzo ber doun (igo behar dugun) aldapa ikusiko dou, bertati itzo berko douna, errez ikusiko dou, bidie nabarmena beita.

50 minutu. Ahalegindus, betititik ikusitako aldapa itzoko dou eta goiko partien bidiek eskubitea eitten do, xendatik eskubit segitua berko dou.

2 ordu. Bidexkan segituko dou eskuibitea jireus, beleixe San Donatiko mendi geñea atako, hemendik beste 10 minututae mendigeñetik segitua, San Donatia ellatuko ga, 1.492. Osozara ordu 1 eta 50 minutu.

2 ordu eta 30 minutu. Aurrea segituz xendatik, aldapa behera, 30 minututan Euskal Herriko erdigunera aieatuko ga.

IRAÑETAKO UDALA



Sakanako Mendizaleak

